

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Urola-Kosta eskualdea modu jasagarrian eta aktiboan ezagutu nahi duten haientzat izango da gure proiektua, eta hauen artean bi segmentu nagusitara zuzenduko gara nagusiki.

Alde batetik, **8 urtetik gorako ikasleak** izango genituzke; batez ere DBHkoak. Ikasturtean zehar, Hezkuntza zentroek zailtasunak izan ohi dituzte askotan beren ikasleei urtez urte irteera plan aktiboak kulturarekin uztartzen dituzten alternatibak eskaintzeko, eta *Urola Greenway* proiektuarekin aukera interesgarri bat luzatuko genieke. Azken batean, ez al dira gertukoak, hezigarriak, naturalak, aktiboak, errazak eta seguruak diren aukeren bila aritzen?

Hezkuntza araututik haratago, bezerogai potentzial hauek udaleku desberdinetan parte hartu ohi dute, eta honek denboraldia hezkuntza arautuko egutegiaz haratago zabaltzeko aukera emango liguke. Adinari dagokionean, gutxienez 8km-ko tarteetan bizikletan ibiltzeko gai diren pertsonetatik hasi eta DBH amaiera bitarteko ikasleengan jarri dugu fokua, gure moduko proiektuen beharra batez ere adin horietan pilatzen dela erakutsi baitigu esperientziak; eta proposamena inklusiboa izango dela ahaztu gabe, hori izango litzateke kontuan izan beharreko ezaugarri nagusia.

Hortaz, aurrez aipatutakoengana iristeko, ikastetxeetan ekintza hauek hautatu ohi dituzten pertsonengana joko genuke; zuzendaritza-taldeengana, ikasketa-buruengana eta koordinatzaileengana, besteak beste. Horretarako, Hezkuntza Sailaren datu-baseetara jo genezake, Ikastolen Elkartera, Kristau Eskolara eta udaleku desberdinak antolatu ohi dituzten udalengana; Urtxintxa kasu.

Bestalde, ikasleak oporretan direnean **eskualdea modu aktiboan bisitatu nahi duten turistak** ere izango dira gure bezerogai nagusienetarikoa. Ekainaren 15etik Irailaren 15era bitartean eta Aste Santuko oporraldietan milioi bat bisitari inguru izan ohi dira eskualdean datuek diotenez. Orohar, turista hauen gehiengoa 60 urtetik gorakoa edo 40 urte ingurukoa den arren, oso publiko anitzari buruz ari gara. Dena dela, badituzte hainbat puntu amankomunean: Urola ingurua ezagutzeko kuriositatea dute eta beren maila fisikoan bada ere aktibotzat dute beren burua. Hori dela eta, adin-tarte desberdinetan banatuta orohar 8-70 urte bitarteko publiko bati buruz ari garela esan genezake.

Hauengana iristeko bidea aurreko segmentuarekiko oso desberdina izango da: Turismo eta Informazio bulegoak, Turismoari bideratutako baliabide publiko

desberdinak, Urola inguruko interesguneak, camping desberdinak, Tripadvisor bezalako plataformak, Sare Sozialak, gai hauen inguruan aritu ohi diren influencer desberdinak, e.a.

Laburbilduz, bizikletan distantzia jakin bat burutzeko pertsona guztiei bideratu litekeen zerbitzu bati buruz ari gara; eta hori hala izanik, **publiko objektiboaren segmentu bakoitzera egokitzean dago gakoa:**

- 8 urtetik gorako Hezkuntza arautuko ikasleak: Ekintza bat luzeraertaineko ibilbidearekin konbinatuko litzateke orohar.
- 8 urtetik gorako udalekuetako parte-hartzaileak: Aurreko segmentuaren antzekoa. Dena dela, ibilbide ertain hauek
- Turista eta bisitari gazteak: Ibilbide luzeenak egiteko aukera interesen araberrako geldialdiekin. Egun bat baino gehiagoko planak egiteko

aukera.

- Turista eta bisitari familiak: Aurrekoak baino ibilbide laburragoak orokorrean, interesen arabera geldialdiekin. Egun bat baino gehiagoko planak egiteko aukera.
- 55-70 urte bitarteko turistak eta bisitariak: Luzeera desberdinetako ibilbideak mota guztietako geldialdiekin (ondare kulturean fokua jarritako proposamenak ere egokiak dira publiko honentzat). Egun bat baino gehiagoko planak egiteko aukera.
- Behar bereziak dituzten bisitariak: Bizikleta bereziak eta atoiak.

HILABETERO IZANGO DUTEN MAIZTASUNA

